

# INTERSEXUALITATEA ETA GIZARTE ESTIGMA

Adriana Agramonte Machado  
Endokrinologiako Institutu Nazionala  
([adriana.agramonte@infomed.sld.cu](mailto:adriana.agramonte@infomed.sld.cu))

INTERSEXUALITATEAREN HISTORIAREN KONTAKIZUN LABURRA, ETA SEXU GARAPENAREN NAHASTEAK DITUZTEN PERTSONEN IDENTITATE PROZESUEI ETA BEREN SEXUALITATEA ERAIKITZEKO PROZESUEI BURUZKO GOGOETAK. PROZESU HORIEK ERAGOZTEN DITUZTEN ELEMENTUAK AZTERTUKO DITUGU, ETA, BEREZIKI, GIZARTE ESTIGMAK BETETZEN DUEN ZEREGINA.

## SARRERA

Gizarte guztietan, bi sexu daudela eta bi sexu horietan biologia eta portaera desberdinak direla uste dugu, eta oso sinesmen sendoa da hori. Guk uste baino gehiagotan, naturak zalantza jartzen du sinesmen hori, fetuaren sexua bereizteko prozesuan gizabanakoak gizonezkoenekin edo emakumezkoenekin nekez identifika daitezkeen ezaugarriak gara baititzake.

Azken urteetan gertatutako aldaketa soziopolitikoak gutxiengo sozialtzat hartutako hainbat giza talderen identitate-adierazpena bultzatu du, eta identitatearen adierazpen askok gero eta onarpen-maila handiagoa dutela ikusten da. Intersexualitatearen berriazko testuinguruan, intersexualentzako gune bat sortu da literaturaren bitartez, egoera intersexualen diagnostikoan aurrera egin da, lotutako alderdi psikosozialak hobeto ulertzen dira, eta norberak tratamendu-estrategien ezarpenean duen tokiaren eta zereginaren garrantzia onartu da.

Lan honek bi helburu nagusi ditu: lehenik eta behin, intersexualitateari historia osoan gaur egun arte eman zaion tratamendua aztertzearen bidez gaira hurbiltzea eta gaia hobeto ulertzea, eta, bigarren, giza talde horretan sexualitatea eta identitatea eraikitzekeko prozesuak argitzen dituzten alderdiak eta gizarte-estigmak duen eragina aztertzea.

## INTERSEXUALITATEA, ANTZINATIK GAUR EGUN ARTE

Marie de Marcis sutan hiltzeko zorian egon zen. Emakume-izenarekin bataiatu zuten, eta Ruanetik hurbil zegoen herri batean hazi zen heldutasun normala zirudienera iritsi zen arte. Ugazabek hileko erregularrak zituela adierazi zuten, eta prozesuan parte hartu zuten medikuek jaiotzatik emakumea izan zela berretsi zuten. Marie, ordea, berarekin lo egiten zuen neskameaz maitemindu zen. Penis zuela eta, beraz, gizonezkoa zela ikusi zuen. Biek ezkontzeko asmoa zuten. Penis hazi ondoren gizonezkoztat hartu ordez, sodomiagatik epaitu eta erruduntzat jo zuten Marie. Epaiaketaren presioa zela-eta, ezin izan

zuen organoa behar bezala erakutsi. Duval doktoreak parte hartu zuenean, penis bulban sartuta ikusi, eta klitori bat ez zela egiaztatu zuen. Izan ere, organoa igurtzi ondoren, gizonezkoen hazi lodiaren eiakulazioa lortu zuen. Medikuen esku-hartzeari esker, Marie ez zuten sutara eraman, baina genero berria ez zioten aitortu. Epaimahaiak 25 urte bete arte emakumeen arropak janzteko eta emakume-bizitzarekin jarraitzen zuen bitartean inorekin sexu-harremanik ez izateko agindu zion [Thomas Laqueur, 1994].

Arestian deskribatutakoa bezalako kasu harrigarriak kontuan hartuta, esan daiteke intersexualitateari lotutako alderdi gehienek eztabaida sortu dutela historia osoan.

Sexu-anbiguotasun forma orok iseka, pena, beldurra eta arbuioa sortu du gizaki askorengan, anbiguotasun horrek eragindako ezinegonaren eta nahasmenduaren ondorioz.

Antzinatean, jende asko hil zuten sutan, deabruaren mandatariak, deabruak hartuak, sorginduak eta abar zirelakoan. Grezian eta Erroman, hermafroditak jazarri egiten zituzten jaiotzean edo hermafroditak zirela jakiten zenean. Erdi Aroan eta Errenazimentuan, hermafroditismoa<sup>1</sup> kode zibiletan eta kanonikoetan aitortuta zegoen. Geroago, interes morbosoa piztu zituen Frantziako eta Italiako gorteetan. Azkenik, zirkurako fenomeno bihurtu zen.

Errenazimentuan, sexu biologikoa finkatzea oso garrantzitsua zen, gizarte-ondorioak baitzuten. Garai haietan, anbiguotasunik gabeko genero-kategoria garbi bat esleitzea oso garrantzitsua zen (gaur egun ere bai, beste arrazoi batzuegatik bada ere), sexu batekoa edo bestekoa izateak pertsona bati nolabaiteko maila bat ematen baitzion gizarte-ordenan, eta, horri lotuta, gizarte-kontsiderazio jakin batzuk ere bai.

Kuban jasotako lehen intersexualitate-kasua 1813koa da, eta Tomas Romay medikuak deskribatu zuen *Diario del Gobierno de la Habana* egunkarian (González, 1973):  
[...] beheko geletako batean hermafrodita zegoela jakinik, antzeman egin nion, ez, ordea, bisaia ederra zuelako, bisaia horretan eta hermafroditaren jokamoldeetan eta ahotsean gazteen samurtasunaren ezaugarriak sumatu nituelako baizik (hark biloa izanik ere). Garaiera ertaina du, haragiak proportzioan; gorputzeko muskulatura eta ingerada emakumeenen antzekoak dira. Titiak ere haren adineko dontzeila baten titien berdinak dira tamainan, figuran eta perfekzioan; areola eta titiburua ere badute [...]. Pubisaren behealdean, gizon guztien leku naturalean, bi hazbeteko luzera duen penis dauka, prepuzioarekin eta glandearekin. Penis hori emakumezkoen sexuko bi ezpainen barruan egoten da beti, eta klitoriaren funtzioa betetzen du, tamaina gehiegizkoa izanik ere [...]; adierazi zuen inoiz ez zuela hilekorik izan eta inoiz ez zuela estimulu benereorik sentitu, ezta sexu baten zein bestearen erakarpenik ere. Berriz galdetu zitzaionean, gizonezkoak nahiago zituela aitortu zuen [...].

Gaur egun, sexu-anbiguitasuna duten pertsonak ez dira «munstro arriskutsutzat» hartzen. Hala ere, mitoen eta kondairen eraginez, «fenomenotzat» hartzen dira, eta jakin-mina, nahasmendua eta nolabaiteko arbuioa eragiten dute. Zientziaren aurrerapenak eta gizartearen bilakaera gorabehera, oraindik gizarte-estigmatizazioa jasan behar izaten dute.

## BEREIZKETA PSIKOSEXUALAREN PROZESUA

Sexu-garapen normal baterako, sexu-kromosoma normalak (kopuruan eta egituran), gonaden garapena, sexu-hodiak eta kanpoko sexu-organoak, eta, azkenik, hormona-ingurune egokia behar dira. Faktore horien alterazioen ondorioz, anomaliak izango dira sexu-bereizketan, eta, kasu gehienetan, sexu-anbiguitasun mota asko eragingo dituzte (beti bistakoak ez badira ere), orekaren hausturak duen intentsitatearen eta haustura hori gertatu den unearen arabera.

Sexu-anbiguitasuna hainbat modutara ager daiteke. Adibidez, gerta daiteke pertsona bat kanpoko emakume-itxurarekin jaio izana, baina barrutik gizonezkoen ohiko anatomia izatea. Kalkulatutakoaren arabera, sexu-organoetako anomaliak lau mila bostehun jaiotzatik batean gertatzen dira (Hughes *et al.*, 2006).

Anatomia intersexuala ez da beti jaiotzean ikusten. Zenbaitetan, pertsona pubertarora iritsi arte ez da agertzen, eta ezustekoa gertatzen da garapen psikosozialean, bigarren mailako sexu-karaktereen garapenari edo gabeziari lotua (besapeko edo pubiseko biloa haztea edo ez, ahots-aldaketak, esleitutako generoarekin bat ez datozen interesen eta lehentasunen agerpena eta abar), edota helduaroan agertzen da (ugalkortasunik eza). Pertsona batzuk nahastea dutenik jakin gabe bizi –eta hil– daitezke.

## SEXUALITATEA, IDENTITATEA ETA GIZARTE ESTIGMA

Gizarte-bizitza osoa generoaren arabera antolatuta eta egituratuta dago. Txiki-txikitatik, generoa bizitzaren funtsezko alderdia dela ikasten dute haurrek, eta sexuak eta generoak dikotomia gisa ikusten dituen gizarte-antolamenduko eta gizarte-elkarreragineko sistema batean hazten dira: bi sexu eta bi genero dauden –eta bi baino ez–, eta antitetikoak, kontrako bipolarrrak diren ideia.

Esanahia gorabehera, sexuaren eta generoaren inguruko aurreikuspenak ez dira hautematen norbait «arauaren» desbideratze gisa agertzen zaigun arte. Une horretan, gure oinarritzko gizarte-aurreikuspen gehienak zalantzan jartzen dira. Horren adibide gisa, ezohiko itxura genitala duen jaioberria aipa daiteke.

Bi sexu baino ez dauden eta sexua itxura genital espezifiko batek definitzen duen uste zurrinak arazo handia sortzen du «arau» horrekin bat ez datorren gorputza duten zenbait pertsonengan. Dikotomia horren eraginpean, nortasuna osatzen da, eta nortasunaren barruan, haren funtsezko alderdietako bi: identitatea eta sexualitatea.

«Arauaren» desbideratzen hartzen den horren aurrean, gizarte-erreakzioa medikoa izaten da funtsean, baina lan honetan ez dugu erantzun medikoa aztertuko, gizarteak intersexualitatearen aurrean oro har duen erreakzioa baizik.

Atal honetan, interakzionismo sinbolikoaren korrante dramatikoak inauguratu zuen Erving Goffman soziologo estatubatuarrek garatutako kontzeptuak baliatuko ditugu sexu-garapenaren nahasteak dituzten pertsonen identitatea aztertzeko. Zehazki, Goffmanek *Estigma, la identidad deteriorada* (1970) obran azaltzen duenez, pertsonaren identitatea, zentzu zabalean, elkarreraginetik sortzen den gizarte-erakuntza da.

Egilearen ustez, estigma pertsonaren ezaugarri bat da, eta pertsona horrek, hartaz dugun ikuspegiagatik, balioa galtzen du gure aurrean dugunean. Topaketa horretan, «arrotzak» berarekin egoten diren pertsonen kategoriaren barruan desberdin bihurtzen duen ezaugarri bat duela ikusten da, eta horrek erakargarritasuna kentzen dio. Zenbaitetan, «akats edo desabantaila» deitzen zaio estigmari. Estigmak, kasu horretan, pertsonari balio handia kentzen dion ezaugarri bat adierazten du.

Goffmanek hiru estigma mota aipatu zituen: deformazio fisikoak, norberaren izaera-akatsak eta arrazari, nazioari eta erlijioari lotutako estigma hutsalak (Goffman, 1970: 14).

Gizarte-elkarreraginean, estigmatizazioa saihestu nahirik, sexu-garapenaren nahasteak dituzten pertsonak ezkutatu edo disimulatu ohi dituzte, modu batera edo bestera, norberaren identitatea osatzen duten, baina gizarteak emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat esleitutakoak bestelakoak diren ezaugarriak: ezaugarri fisikoak, garapen psikosozialari lotutakoak, lehentasunak eta abar.

Gure testuinguru historiko eta kulturalean, intersexualei balioa kentzen dien desberdintasun bat adierazten duten seinaleak adierazitako lehen bi estigma motetakoak dira, Goffmanen ustez: deformazio fisikoak eta izaera-akatsak. Deformazio fisikoak seinale nabariak dira gizarteak sexualki desberdintzat hartzen direnetaz duen pertzepzioan, eta ezaugarri morfologikoak, bigarren mailako sexu-karaktereen garapena eta sexu-organoen itxura erreferentzia modura hartuta dira desberdinak pertsona horiek, gure psikologia-zerbitzuan izandakoek elkarrizketan adierazi zuten:

Pena sentitzen dut nire sexuagatik, bi sexu ditudalako eta horregatik nagoelako hemen [ospitalean], nire arazoa konpontzeko, gaizki sentitzen bainaiz daukadanarekin [...]; konturatzen nintzen akatsak nituela, pena ematen zidan amari esatea eta besteak konturatzea [20 urte, ikaslea, 5 alfa reduktasa defizita].

Harrituta geratu nintzen hori ikusi nionean [sexu-organoak]. Nire bizitzan inoiz ez nuen halakorik ikusi, eta, tira, hark eragin zidana... Orduan hasi nintzen nire nerbioen kontuarekin, inoiz ez bainuen halakorik ikusi [...]. Eskolan izan zituen mutil-lagunak, baina beti banantzen ziren, ukitzen zuten bakoitzean konplexua

sentitzen baitzuen titiengatik; gizonek hauxe esango zioten beldur zen: Ai, gizona dirudizu! [40 urte, okina, ama].

Gogoeta horietan, sexu-garapenaren nahastea duen pertsonak eta senideek sexu-organoen anbiguotasunari lotutako distres zapaltzaile eta izugarria azpimarratzen dute. «Arrotz» sentitzeak eta «desberdin» sentiarazten duten gorputz-ezaugarriak ezkutatzeko ahaleginek eta nahiek bizitza osoa markatzen eta definitzen dute. Horren ondorioz, zalantzaz eta nahasmenduz betetako hutsune morala sortzen da. Sexua sexu-organoen itxura espezifiko batek definitzen duen usteak bizitza osoan eramaten den arazo handia sortzen du, norberak «gizarte-arauarekin» bat ez datorren gorputza duela uste baitu.

Goffmanek aipatutako «izaera-akatsei» dagokienez, intersexualitateari lotutako ezaugarri batzuek gogo-aldarte edo dimentsio psikologiko baten berri ematen dute:

Ez dakit, zaila egiten zait bera ulertzea. Ongi dago, eta, bat-batean, gelan sartu eta bizitzeaz nekatuta dagoela esaten dit, azken batean, zertarako, gerta dakioken gauzarik onena hiltzea dela. Oso neska zaila da, agian betiko konplexuengatik. Konplexu horiek kalte handia egin diote, eta horiengatik ez du besteekin harremanik eduki nahi izan [47 urte, ama, profesionala].

Polizia izan nahi zuen, baina horrekin konplexu handiagoa zuen, nire ahizpek hori gizonezkoen kontua zela esaten baitzioten. Txikitan, nahiago izaten zuen baloiarekin jolastu, eta lagun zituen mutilak babesten zituen arazoak zituztenean, baina min handia hartzen zuen mari-mutil deitzen ziotenean. Iraitzen zutenean, goitik behera aldatzen zen. Haserretu egiten zen eta, heltzen ez bazuten, edonor astintzeko gai zen [40 urte, okina, ama].

Adierazpen horiek pertsonaren egoera psikologikoa baino gehiago erakusten dute. Egoera intersexualari eta generoarekin zerikusia duten atribuzio konplexuen eraginei lotutako hainbat sintoma psikoemotional ondoriozta ditzakegu (antsietatea, depresioa, labilitatea eta sentimendu negatiboak). Gogoetetan, gainera, esleitutako generoari lotutako kontraindikazioak haurtzaroan hasi eta nerabezaroan areagotzen direla ikus dezakegu. Esleitutako generoarekin bat ez datozen portaerak, gustuak eta interesak agertzen direnean, berehala sortzen dira pertsonen arteko gatazkak gizarte-elkarreragineko eremuetan.

Arestian aipatutakoa aztertzean ikus dezakegunez, «desberdina» dena ulertzea eta onartzea bultzatzen ez duen kultura- eta gizarte-giroa —indibiduazio- eta sozializazio-prozesua gertatzen den testuingurua— funtsezko faktorea da intersexualitatearekiko aurreiritziak sortzeko. Aurreiritzi horiek barneratu egiten dira, eta intersexualak marjinalatzeaz gain, senideak ere eraginpean hartzen dituzte.

Goffmanek Erick Erikson-en «niaren identitate» kontzeptua hartu (Goffman, 1970: 127) eta estigmari eta horren erabilerari lotuta dauden pertsonaren sentimenduak ikertu zituen. Adierazi zuenez, gizarte-identitate

estigmatizatuaren eta identitate pertsonalaren arteko elkarreraginean, pertsonak anibalentzia sentitzen du bere niarekiko.

Elkarrizketa batean, honela adierazi zuen batek anibalentzia hori:

Izan nahi dudan bezala bizitzeari utzi, eta naizen bezala bizitzen ikasi behar dut. Ez naiz izan nahi nukeen bezalakoa: normala, bagina eta guzti; sexu-organoetan dago nire arazoa. Bestelakoak bezalakoa izan nahi nuke, eta badakit naizen bezalakoa izaten ohitu behar dudala, baina nola egongo naiz gizon batekin, sexu-organo hauek edukita. Itxuraz pozik nago, baina benetan ez; ez naiz ausartzen zenbait gauza egitera, hondartzara joatera, besteen aurrean arropa erantzera... [27 urte, erdi-mailako teknikaria, disgenesia gonadala].

Intersexualitatearen esperientzia aztertzean ikusten denez, indarrean dagoen sexuen eta generoen dualismoak eragiten ditu intersexualek jasaten dituzten babesik ezaren eta isolamenduaren sentimenduak. Norberaren sexu-anatomiaren eta gizonezko batentzat eta emakumezko batentzat egokitzat hartzen denaren inguruko kezkek areagotu egiten dituzte sentimendu horiek, eta niarekiko anibalentzia eta dikotomia gisa agertzen dira.

Gorputz-identitatea eraikitzeke zailtasunaren ondorioz (gorputzarekiko erlazio gatazkatsua eta disoziatua), gorputza arrotz ikusteko sentimenduak sor daitezke, sexu-organoak arbuiatzeak, ukatzeak edota baztertzak eraginda. Gorputzari lotutako kezkek eta atsekabeek sexu-esperientziak mugatu eta sexualitateaz gozatzeko edo sexualitatea ukatzeko modua markatzen dute.

Horrela, beraz, gorputza (erabat edo neurri batean ukatua), genero-eraikuntzak (zalantzan jarriak) eta sexualitatea (porrot gisa bizitzen dena) funtsezko dimentsioak dira identitate pertsonala garatzeko eta eraikitzeke.

## LOTURA HARREMANAK ETA SEXUALITEAREN ERAIKUNTZA

Hemen denek dute beren arazoa. Nire arazoa zera da... Ez zait esatea gustatzen; izan ere, ni... Hori nik inori ez, nire amari ere ez diot esan. Medikuek esan diotelako jakin du... [20 urte, ikaslea, 5 alfa reduktasa defizita].

«Normaltasunaren» estandarren barruan «kategorizatuta» ez dauden pertsonentzat, «sexualki desberdinak» izatea lotsa publikoan edo erruduntasun pribatuean bizitzea da. Dilema beti agertzen da, hainbat modutara bada ere. Horrela, beraz, sexualitatearen eraikuntza zeregin latz eta konplexu bihurtzen da pertsona horietako gehienen bizitzan.

Pertsona horiengan, eraginik handiena jasotzen duen eremua sexua dela pentsa daiteke. Hainbat faktore daude horretarako: besteak beste, «gaizki osatutako sexu-organoak zuzentzeko» tratamendu kirurgikoak, egoera intersexualaren erabilera familiarra eta klinikoa (beti ez da gardena eta garbia izaten, «esan edo ez esan» zalantza izaten da beti, eta sexua eta sexualitatea aipatu nahi ez diren alderdi gisa geratzen dira), eta gizartearen presio eta eragin ugariak. Horrela, beraz, kezken, zalantzen eta sexuarekiko eta

sexualitatearekiko beldurren komunikazioa oso zaila izan daiteke lotura-harreman guztietan.

Familiak isiltasuna baliatzen du gizarte-estigmaz babesteko eta estigma hori saihesteko mekanismo gisa. Sekretuan gorde ohi du egoera intersexualari lotutako guztia. Gai hori aipatzen bada, zurrumurru batean, minez hitz egiten da. Gai ugari eta konplexuei ekiteko diskurtso egoki baten gabezia dela-eta, familiako kideak urrundu egiten dira, eta isolamendua eta bakartasuna sortzen duten gatazkak agertzen dira.

Zenbaitetan, osasun-arloko profesionalak ere zailtasunak izaten dituzte pertsona horiekin eta familiarekin sexualitateaz eta intimitateaz hitz egiteko. Muga horiek giza sufrimendua arintzeko funtsezko zeregin terapeutikoak eta esperientzia psikosexuala baliozkotzeko eta normalizatzeko aukerak –hau da, funtsezko alderdiak sexu-identitate egokia osatzeko prozesuan– oztopatzen dituzte.

Bikotekideari sexualitatearen inguruko alderdien berri ematean ere antzeko zailtasunak sortzen dira. Hitz egokiak aukeratzeko oztopoak ager daitezke, edota sexu-anbiguitasuna edo ugalketa-alderdiei lotutako edozer gauza agerian geratuz gero baztertuta geratzeko beldurra eta lotsa ager daitezke.

Orain arte aztertutakoak ez dira intersexualitatearen alboko eta azpiko alderdi guztiak. Lanaren asmo nagusia giza talde horren bizi-kalitatearekin zuzeneko zerikusia duten funtsezko gaietara buruzko gogoeta bultzatzea izan da.

Intersexualitatearen esperientziak ez du zertan lotsagarria izan edo errudun sentiarazi. Lehenik eta behin intersexualitatea gaindimentsionatu gabe erantzuten dugun heinean ahulduko dugu gizarte-estigma.

Intersexualitatea ez da zorigaitzoko egoera, eta ez du zertan giza ahalmena galtzea eragin. Hori izan liteke gehiengoaren ikuspegia, desberdina dena onartzen eta legitimatzen den heinean. Ildo horretan, aproposa da Milton Diamond-en (1999) gogoeta batekin amaitzea:

Intersexualitatea normala eta ulergarria da. Sexu-organo anbiguoak dituen haur baten jaiotza, larrialdiko kirurgiara jotzeko edota ezkutatzeko eta estaltzeko aukera izan ordez, medikuntzan, familian eta gizartean apaltasunez jokatzeko eta gogoeta egiteko aukera izan daiteke, eta agian ospatzeko ere bai.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Gaur egun, «hermafroditismo», «hermafrodita», «pseudohermafroditismo» eta «intersexu» terminoek eztabaida sortzen dute, eta pertsonentzat gutxiesgarriak izan daitezke. «Sexu-garapenaren nahaste» terminoa (Hughes *et al.*, 2006) duela gutxi onartu dute intersexualitatearen esparruko hainbat adituk. Nahaste horietan, garapen kromosomikoa, gonadala edo sexu anatomikoarena ezohikoa da.

(Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak itzulia)

## BIBLIOGRAFIA

American Academy of Pediatrics. «Evaluation of the newborn with developmental anomalies of the external genitalia». *Pediatrics*, 106. lib., 1. zk., 2000, 138.-142. or.

CASELL, E. J. «Diagnosing suffering: a perspective». *Ann Intern Med*, 131. lib., 7. zk., 1999, 531.-534. or.

CULL, M. «Treatment of intersex needs open discussion». *BMJ*, 324. zk., 2002, 919. or.

DIAMOND, D. «Sex, gender, and identity over the years: a changing perspective». *Child Adolesc Psychiatric Clin N Am*, 13. zk., 2004, 591.-607. or.

DIAMOND, M. «Pediatric management of ambiguous and traumatized genitalia». *J Urol*, 162. zk., 1999, 1021.-1028. or.

GOFFMAN, E. *Estigma, la identidad deteriorada*. Amorrortu, Buenos Aires, 1970.

GONZÁLEZ, J. E. «Síndrome intersexual. Algunos aspectos». Endokrinologiako lehen mailako espezialistaren titulua lortzeko graduko tesia. Endokrinologiako Institutu Nazionala, 1973.

HUGHES, A. et al. «Consensus statement on management of intersex disorders. Review». *Arch Dis Child*, 2006, 1.-10. or. Intersex Society of North America. 2002. website [www.isna.org](http://www.isna.org) (2007ko otsailaren 18an berrikusia).

KIPNIS, K. eta D. DIAMOND. «Pediatric ethics and the surgical assignment of sex». *The Journal of Clinical Ethics*, 9. lib., 4. zk., 1998, 398.-410. or.

LAQUEUR, T. *La construcción del sexo. Cuerpo y género desde los griegos hasta Freud*. Ediciones Cátedra, Valentzia, 1994.

MONEY, J. eta A. EHRHARDT. *Man and Woman, Boy and Girl*. Johns Hopkins University Press, Baltimore, 1972.

PLUMMER, K. «La diversidad sexual: una perspectiva sociológica». In *La sexualidad en la sociedad contemporánea. Lecturas antropológicas*. Fundación Universidad, Madril, 1991.

PREVES, S. E. *Intersex and identity. The contested self*. Rutgers University Press, New Brunswick, New Jersey, and London, 2003.

ROEN, K. «Intersex embodiment: When health care means maintaining binary sexes. Editorial». *Sexual Health*, 1. zk., 2004, 127.-130. or.

STEIN, M. et al. «A newborn infant with a disorder of sexual differentiation: A challenging case». *J Dev Behav Pediatr*, 24. zk., 2003, 115.-119. or.

TALEPOROS, G. eta M. P. MCCABE. «Body image and physical disability: Personal perspectives». *Soc Sci Med*, 54. lib., 6. zk., 2002, 971.-980. or.